

## FUNTSEZKO JARDUERAK

**-EKOIZPENA:** Smart Helmet kasko bat sortzeko material desberdin batzuk behar dira:

Kevlar-a eta Karbono-zuntza. Hauek, kaskoak fabrikatzeko makinan elkartuz eta fabrikazio prozesu baten ondoren, kaskoa sortuko da. Ondoren, Bluetooth mikrotxipak (ATWINC3400-MR210CA1) ezartzen dira, gure ahots gidak funtzionatu dezan. Gure diseinu bereziarengatik, kaskoa aerodinamikoagoa eta erresistenteagoa da. Gero, bulegoetan, informatikariek mikrotxipak programatzen dituzte eta azkenik tailerrean margotu.

Kostu guztiak estaltzeko urtea 702 kasko saldu behar ditugula kalkulatu dugu, beraz gure bost langileak gau eta eguneko 8 orduko txandetan banatuta egongo dira lanean kaskoak fabrikatzeko makinan. Horrela, mozkina 0 izatea lortuko dugu, hau da, urte bateko gastu guztiak estaliko ditugu. Hilabetean 59 kasko egin beharko ditugu.

**-PLATAFORMA/SAREA:** Gure produktua eta enpresa ezagutzera emateko sare sozialak eta web gune propioa sortuko ditugu. Instagram eta Twitter kontuak egitea pentsatzen dugu eta han gure produktuaren eta enpresaren berriak argitaratuko dira. Hauek administratzeko gutariko bat egongo da lanean.